

## 2021/22 IKASTURTEKO IRAKASKUNTZA EGOKITZEKO PLANA GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

Dokumentu honetan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean 2021/22 ikasturtean gradu eta graduondoko ikasketen irakaskuntza antolatzeko ezarritako irizpideak eta modalitateak biltzen dira. Dokumentua UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 29an ezarritako orientabideen eta ildoen arabera prestatu da<sup>1</sup>. Ikastegiei emandako orientazioak bi printzipioen arabera egituratzen dira:

- UPV/EHUren irakaskuntzaren izaera presentzialari eustea.
- Irakaskuntza egoera batera egokitzea, non segurtasun tarreak, edukiera mugatua eta neurri higieniko-sanitarioak emango diren «normaltasun berriaren» testuinguruan COVID 19a prebenitzeko osasun neurriak bete ahal izateko.

Beraz, joan den urtean bezala, eta haren esperientzia oinarri hartuta, 2021/22 ikasturtea *“prestakuntza presentzial egokituaren ikuspegitik planifikatu behar da; hau da, jarduera presentziala lehenetsita, baina eskola telematiko eta saio asinkronikoekin osatuta”*.

Adierazten da, halaber, osasun agintariak ezarritako irizpideek ikastegi bakoitzak irakaskuntza egokitzeko hartutako neurrien areagotzea edo lasaitzea ekarriko dutela une oro, oreka bat bermatuta betiere irakaskuntzaren kalitatearen eta ikastegiko pertsonen osasuna babestearen artean.

### 1. GRADUONDOKO IRAKASKUNTZA

Ikastegian eskainitako hamar masterretako matrikularen tamainak ez ditu planteatzen espazioen edukiera eta eskuragarritasun arazoak; beraz, graduondoko irakaskuntza presentziala izango da kasu guztietan.

### 2. GRADUKO IRAKASKUNTZA

UPV/EHUK osasun prebentziorako hartutako neurrien esparruan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean emandako 5 graduen eta 3 gradu bikoitzen irakaskuntza irizpide hauen arabera egokituko da:

- Presentzialtasun maximoa.

---

<sup>1</sup>Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientazioak. 2020/21 IKASTURTEA - 2021-2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak ( <https://www.ehu.eus/es/orientaciones-para-la-planificaci%C3%B3n-de-la-ense%C3%B1anza-y-el-aprendizaje>)

- Presentzialtasun osoa praktketan.
- Ikasleen banaketa txandatan, haien mugikortasuna banatzeko eta tartekatzeko.
- Irakaskuntza presentzialaren eta telepresentzialaren bateragarritasuna, eta ordutegien trinkotzea.
- Irakaslearen presentzia ikasgelan.
- Irakaskuntza orduak mantentzea.

Talde modalitate bakoitzerako espazioen erabilerak baldintza horietan bermatzeko, honako aldaketa hauek egingo dira:

- a. Taldeen egitura: 3. eta 4. mailako taldeen txanda aldaketa; horrelakoetan, irakaskuntza goizez eman ohi da, eta arratsaldera aldatuko da.
- b. Ordutegiak: taldeen tamainarekin bat etorrira, irakaskuntza modua hiru irakaskuntza mota hauetara egokituko da:
  - Presentziala: eskola guztiak fakultatean.
  - Bimodala: eskola presentzialak (fakultatean) eta telepresentzialak txandakatzea.
  - Hibridoa: aurreko bi moduak konbinatzea. Taldearen irakasgai batzuk bimodalak dira, eta beste batzuk guztiz presentzialak.

**Presentziala.** Batez beste 50 pertsonatik beherako matrikulazioa duten taldeetan, irakaskuntza magistrala eta praktikoa modu presentzialean egingo da, fakultatean. Instalazioetako edukierak aukera ematen badu, talde guztia ikasgelan egongo da. Ikasgelaren edukiera txikiagoa denean, taldea bi ikasgelatan banatuko da, eta irakaskuntza modu presentzialean jasoko du, BBCren laguntza osagarriarekin.

**Bimodala.** Batez beste 50 pertsonatik gorako matrikulazioa duten taldeetan, irakaskuntza bimodala izango da eskola magistraletan, eta guztiz presentziala, berriz, ikasgelako praktiken azpitaldeetan, ordenagailukoetan, laborategietan edo mintegietan (IT, OT, LT, M).

Eskola magistralen kasuan, irakaskuntza bimodala bi txandatan antolatu da (A azpitaldea eta B azpitaldea), eta asteka txandakatuko da. Hau da, bi astean behin, ikasleek irakaskuntza presentziala izango dute fakultatean, eta, modu bateragarrian, BBC plataformaren bidez online egindako jarraipena jasoko dute. Irakaskuntza hori irakaskuntza presentzial konbentzional gisa ematen da, baina A eta B taldeek, asteko txandetan, ikasgelako irakaskuntza edo irakaskuntza telepresentziala jasotzen dute.

Praktikako modalitate guztietan (IT, OT, LT, M) azpitalde bakoitzaren ikasle guztiek ikasgelara joateko aukera izango dute. Esleitutako espazioaren edukierak horretarako aukera ematen ez duenean, BBC bidez konektatutako ispilu ikasgelak egokituko dira, eta irakasleak bi ikasgelatan emango du aldi berean.

Talde bimodalaren ordutegia era batera antolatzen da, non txandakako bertaratze bimodala eskola magistraletan bateragarria baita eskola praktikoen saio presentzialekin.

**Hibridoa.** Talde hibridoek graduko irakasgai partekatu eta espezifikoen errealitate bikoitzari erantzuten diote.

Irakaskuntza txandakakoa da (presentziala/telepresentziala) 50 ikasletik gorako matrikula duten irakasgai taldekatu komunetan (KEPUKO/SOPO). Irakasgai horietan bimodaltasunaren ezaugarriak aplikatzen dira; hau da, txandakako eskola magistralak eta saio praktikoko presentzialak.

Graduko irakasgai espezifikoetan, bestalde, irakaskuntza guztiz presentziala da 50etik beherako taldeetan.

## 2.1. Talde/gradu/irakaskuntza moduen egitura.

Hurrengo taulan, 2021/2022 ikasturterako irakaskuntza modua zehazten da gradu, talde eta txanda bakoitzerako, talde bakoitzaren batez besteko tamaina aintzat hartuta. Mailaz maila ikus daiteke gradu bakoitzeko zein talde den presentziala, zein den osorik bimodala eta zein hibridoa (irakasgai komunak eta espezifikoak konbinatzen ditu); beraz, talde bera bi koloretan agertzen da.

T1. Graduko eta gradu bikoitzeko taldeen egitura, Gizarte Zientzietan							
		TSOZIO30 eta 31; TPOLIT30 eta 31 GBSOPO31		SOZIOLOGIA (TSOZIO30)		POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA (TPOLIT30)	
		Es	Eu	Es	Eu	Es	Eu
1	GOIZEZ	01(95)	31(95)				
2	GOIZEZ	01(90)	31(80)	01(35)	31(45)	01(45)	31(40)
3	ARRATSALDEZ	01(80)	31(75)	16 (30)	46 (35)	16 (30)	46 (30)
	G/A			HA	HA	HA	HA
4	ARRATSALDEZ			16(40)	46(35)	16(40)	46(35)
	G/A			HA	HA	HA	HA

OHARRA: Presentziala ; Bimodala

T2. Gradu eta gradu bikoitzeko taldeen egitura, Komunikazioan											
		TRAZE; TKOMUN; TPUBLI; GBRAPU GBIKKA		KAZETARITZA IKUS.KOMUNI.		KAZETARITZA		PUBLIZITATEA ETA H.PU		IKUS- ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA	
		Es	Eu	Es	Eu	Es	Eu	Es	Eu	Es	Eu
1.	GOIZEZ	01(100)	31(95)								
		02(100)	32 (95)								
		03 (95)									
2.	GOIZEZ	01 (65)	31(65) 32 (75)		31 (50)	01 (65)	31 (75)		31 (50)		31 (50)
		ARRAT SALDEZ	16 (90)		16 (75)		16 (50)		16 (85)		16 (65)
	17 (80)			17 (60)							
3.	ARRAT SALDEZ					16 (100)	46 (65)	16 (85)	46 (50)	16 (50)	46 (50)
	G/A					HA		HA	HA	HA	
4.	ARRAT SALDEZ					16 (85)	46 (65)	16 (90)	46(40)	16 (50)	46 (50)
	G/A					HA	HA	HA		HA	

OHARRA: **Presentziala** ; **Bimodala**

## 2.2. Presentzialtasun eta tele-presentzialtasun ehuneko globalak

Atal honetan, presentzialtasun eta telepresentzialtasun ehuneko globala jasotzen da tituluko, irakasgaiko eta mailako. Laburbilduta, irakaskuntza egokitzeko planak kreditu presentzialen % 80 bermatzen ditu batez beste, fakultateko graduako irakaskuntza osoan. Ehuneko hori graduen eta mailen arabera aldatzen da, honako hauen baitan: taldeen tamaina (gradu batzuetan handiagoak besteetan baino, eta handiagoak lehen zikloan ere), irakasgai komun edo espezifikoko eta horien praktikako kredituen karga; izan ere, azaldu dugunez, praktiketako kreditu guztiak (IT, OT, LT, M) presentzialak dira.

Eranskinean, presentzialtasun eta telepresentzialtasun ehunekoak laburbiltzen dituzten taulak jasotzen dira, titulu guztietako maila eta talde bakoitzerako, baita bimodalitatean emango diren irakasgaiak eta haien telepresentzialtasun ehunekoa ere.

Horri dagokionez, komeni da azpimarratzea gradu eta maila komunak dela bi arloetako gradu eta gradu bikoitzentzat, eta plan berrien ezarpena bigarren mailara iritsiko dela datorren urtean. Azken kasu horretan, bi planetan bat datozen irakasgaietan ikasleentzako irakaskuntza eskainiko da ere desagertzear diren mailetan.

### 2.3. Orduategiak

Taldeen orduategiak eskuragarri egongo dira fakultateko webgunearen esteka honetan: <https://www.ehu.es/es/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea/horarios>. Talde bakoitzaren irakaskuntza moduarekin bat etorrira, orduategi guztiak eskema honen arabera antolatzen dira gradu guztietan:

- 1) Lauhilekoaren lehen astea (1. astea eta 16. astea): eskola magistral guztiz presentzialak, taldea bi azpitaldetan banatuta haren tamaina 50etik gorakoa denean.
- 2) Irakaskuntza bimodala asteko txandatan antolatzen da; hartara, modalitate horren arabera emango diren irakasgaietan, ikasleen bertaratzea fakultatean honela antolatu da:

	1. LAUHILEKOA 2-15 asteak	2. LAUHILEKOA 17-30 asteak
Aste bikoitiak	A azpitaldea	B azpitaldea
Aste bakoitiak	B azpitaldea	A azpitaldea

- 3) Argitaratutako orduategietan, eskola orduen berri ematen zaie azpitalde bakoitzaren (A eta B) ikasleei. Taldeak hurrenkera alfabetikoan banatu dira: A (A-I) eta B (J-Z). Saio telepresentzialak urdinez ageri dira, eta presentzialak, berdez.

### 2.4. Tutoretzak

Irakasleen tutoretzak modu presentzian eta/edo telepresentzian egin daitezke BBC plataformaren bidez. Irakasle bakoitzak GAURen grabatu ditu tutoretza orduak, baita horiek egiteko lekua ere. Ikasleek zerbitzu hori modu telematikoan jasotzeko aukera izanez gero, areto birtualerako esteka GAUR bidez emango zaie.

### 2.5. Ebaluazio sistemak

Indarrean den araudian ezarritako neurriek ahalbidetzen duten neurrian, lauhileko bakoitzaren amaierako ebaluazio probak presentzialak izango dira.

Era berean, oraingo egoera dela eta, irakasgaien irakaskuntza gidetan:

- a) Ebaluazio etengabearen aldeko planteamendua lehenetsiko da; hala, eskolaldian hainbat proba, entregagarri eta ariketa banatuko dira, eta horien bidez ikaskuntzen ebaluazio jarraitua egin ahal izango da.
- b) Ebaluazio presentzialarekiko alternatiba bat proposatuko da, hura modu ez-presentzian edo urrunetik egin behar den kasuetarako.

Edonola ere, ebaluazioari buruzko alderdietan ere, unean-unean indarrean diren gai akademikoei buruzko erabakietan adierazitakoa beteko da (<https://www.ehu.es/es/temas-acad%C3%A9micos>).